

KANALAK

Komunikazio kanalak

Gure produktua ezagutarazteko, panfletoekin, karteekin eta egunkarian erakusten



hasiko gara herri txikietan, udalak interesa pizten has daitezzen edo produktua ezagut dezaten. Era berean, argazkiak, produktuaren funtzionamendua eta abar gure sare sozialetara igoko ditugu, eta, horrela, bezeroek eta produktua erabiliko dutenek gure enpresari buruz gehiago jakin ahal izango dute. Sare sozialetan zein herri

txikietan ezagunak egiterakoan eta salmenta dezente egin ditugunean, iragarki bat argitaratuko dugu telebistan hainbat kanaletan, gure produktua hiri handietara eta herrialde ezberdinetara zabaltzeko.

Banaketa kanalak



Bezeroak produktua erosi ondoren, gu geu izango gara, hau da, enpresa, produktua etxera edo bezeroak erabakitzen duen bilketa-puntura bidaliko duena. Kamioi handi bat daukagu eserlekuak eramateko. Geu izango gara eserleku bezeroak erabakitako lekuan jarri eta martxan jarriko ditugunak.

Salmenta kanalak

Bezeroek ere aukera izango dute beren produktua gure biltegian jasotzeko, bertan eserleku guztiak saltzen baitugu. Biltegian salmentak ondo badoaz, webgune bat sortuko dugu, eta bertan gure produktuak ere salduko ditugu.

